

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

2980

AGINDUA, 2023ko ekainaren 14koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, gizarte-ekonomiako prestakuntzarako laguntzen deialdirako oinarriak onartzeko eta horien deialdia egiteko 2023. urterako.

Lan eta Enplegu Sailak, Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren bidez, eskumen eskusiboa dauka gizarte-ekonomiak hartzen dituen forma desberdinetan ageri diren balio eta errealitatea sustatu, defendatu eta hedatzeko orduan: kooperatibak, mutualitateak, fundazioak, jarduera ekonomikodun elkarteak, lan-sozietateak, laneratze-enpresak, enplegu-zentro bereziak, arrantzaleen kofradiak, eraldaketako nekazaritza-sozietateak eta beste erakunde berezi batzuk (Gizarte Ekonomiaren martxoaren 29ko 5/2011 Legearen 5. artikulua).

Donostia da Gizarte Ekonomiaren hiriburua 2023. urterako. Hala, merkatuaren ekonomian parte hartzeko modu alternatibo honetan Donostia, Gipuzkoa eta Euskadi lider direla berretsi da. «Gizarte-ekonomia» etiketak biltzen dituen enpresen eta erakundeen kopuruak, eremu honetan lan egiten duten eragile sozioekonomikoen seiren bat baino gehiago hartzen du lurralde honetan.

Ondorioz, 2023. urte honetarako, igo egin da apur bat Eusko Jaurlaritzak babestu nahi dituen jarduera diruz lagungarriak finantzatzera bideratutako aurrekontu-programa.

Beste berrikuntza bat ere badakar deialdi honek, 2023koarekin alderatuta: babesa eman zaie gizarte-ekonomiaren eremua landuko duten unibertsitate-ikerketei ere, hartara, ziurtatuta egoteko ikerketa horiek gizarteari zabaltzeko beste baliabide ekonomiko hornituko dela. Unibertsitateko artikulua eta liburuak, ugariak ez ezik, taxuzkoak dira oso, eta Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak funtsezko irizten dio ahalik eta hedapen handiena egiteko ahalegina egitea.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluan ezarritakoa betez, deialdi hau Lan eta Enplegu Sailaren 2023. urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dago (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/lan-enplegu-saila/> webgunean dago argitaratuta plan hori).

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko 2023. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legea onartu ostean, deialdia finantzatzeko aurrekontu-kreditu nahikoa dagoela egiaztatuta eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak adierazitakoa kon-tuan hartuz, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, hauxe

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da gizarte-ekonomiarekin zerikusia duten prestakuntza-jarduerak egiteko Eusko Jaurlaritzak, Lan eta Enplegu Sailaren bitartez, emango dituen laguntzetarako deialdia egiteko oinarriak onartzea, eta 2023. urterako deialdia egitea.

2. artikulua.– Jarduera diruz lagungarriak.

Agindu honetan aurreikusitako laguntzak dirulaguntzat hartuko dira, eta horien gastuak jarduera hauek finantzatzeko izango dira:

1.– Prestakuntza-jarduerak:

a) Unibertsitate-eremuan, unibertsitate aurreko eremuan edo sozietateen eremuan gizarte-ekonomiaren arloko prestakuntzara bideratuta landuko diren ekintzak –prestakuntza espezifiko eta desberdinak–, kooperatibismoari edo lan-sozietateei buruzko hasierako ezagutza lortzeko edo perfektionatzeko edo, oro har, ezagutza horretan gaitzeko.

b) Unibertsitate-eremuan unitate didaktikoak ezartzeko landuko diren esperientzia pilotuak.

c) Lanbide-heziketaren eremuan unitate didaktiko egokiak diseinatzea eta prestakuntza-jarduerak sistematizatzea, bai curriculumekoak, bai curriculumetik kanpokoak.

2.– Gizarte-ekonomia gizartean zabaltzeko jarduerak. Honako hauek:

a) Kooperatiben eta lan-sozietateen gaineko aldizkako argitalpenak editatzea, unibertsitate-argitalpenak salbu.

b) Aldian behingo jardunaldiak.

c) Ekitaldi bereziak: gizarte-ekonomiako enpresa eta erakundeen ikusgaitasuna bultzatzekoak, hala nola oroipen- edo omenaldi-egunak, sari berezien banaketa eta antzeko ekitaldiak. Baita ere Donostia gizarte-ekonomiaren hiriburu espainiar izendatuz gero, horren inguruan burutuko diren ekitaldi eta jarduerak.

d) Gizarte-ekonomia gizartean zabaltzeko jarduerak. Esate baterako: gizarte-ekonomiako informazio-jarduerak eta beste lurralde-eragile batzuekiko kontrastea, eta zabalkunde-jarduerak hainbat formatu eta euskarri grafikotan: irratia, prentsa, telebista, Internet eta multimedia. Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak baliozkotuko ditu jarduera horiek, betiere praktikara eramanda jarduerok izan dezaketen benetako eragina kuantifikatuz eta zenbatetsiz.

3.– Gizarte-ekonomiako ikerketa-jarduerak, Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren iritziz, orain artekoak ez bezalakoak eta Euskadiko gizarte-ekonomia garatzeko erabilgarriak direnak. Edonola ere, gizarte-ekonomia honako gai hauekin lotuta lantzen duten jarduerak:

a. Ingurumena eta gizarte-ekonomia.

b. Gizarte-ekonomiako ekintzailtzaren finantzaketa.

c. Gizarte-ekonomiako kolektiboentzako babes osagarria.

d. Gizarte-ekonomian espezializatutako unibertsitate-argitalpenak.

Agindu honen indarrez laguntza jaso dezaketen prestakuntza-, zabalkunde- eta ikerketa-jarduerak aurten hasi behar dute, eta 2024ko ekainaren 30a baino lehen amaitu.

3. artikulua.– Baliabide ekonomikoak, esleipen-prozedura eta emateko gehienekoa.

1.– Agindu honen xedea betetzeko, zortziehun eta hogeita mila (820.000) euroko gehieneko kopurua erabiliko da guztira, honela banatuta: laurehun eta laurogeita hamabi mila (492.000) euroko ordainketa-kreditua 2023 ekitaldirako, eta hirurehun eta hogeita zortzi mila (328.000) euroko konpromiso-kreditua 2024 ekitaldirako.

2.– Laguntzak esleitzeko, lehiarik gabeko aldibereko konkurrentzia-prozedura erabiliko da. Prozedura horretan, eskabide guztiek izango dute aukera deialdiaren xede diren laguntzak jasotzeko, garaiz eta behar bezala formulatzen badira eta betekizun objektiboak eta subjektiboak betetzen dituztela egiaztatzen badute. Horretarako, eskabide bakoitzari zenbat dagokion kalkulatu da, aintzat hartuta zein diren agindu honetako 11. artikuluan aurreikusten diren gehieneko portzenteak eta zenbatekoak.

3.– Zenbateko horiei dagozkien dirulaguntzak esleituko dira, baldin eta artikuluko honetako 1. paragrafoan adierazitako zuzkidura ekonomikoa nahikoa bada aurreko apartatuan adierazitakoaren arabera hasiera batean kalkulatuak zenbatekoak ordaintzeko. Aski ez bada, murrizketa proportzionala aplikatu da, kalkulatuak zenbatekoen arabera.

4.– Ezin izango da guztira 60.000 euro baino gehiago bideratu 2.2.a) artikuluko aldizkako argitalpenak editatzeko. Onargarrizat jotzen diren jarduera guztiak artatzeko aski ez bada, horien guztien artean murrizketa proportzionala aplikatu da.

5.– Orotara, ezin izango dute gainditu 50.000 euroko zenbatekoa 2.2.d) artikuluko jarduerak; horretaz gainera, jarduera bererako ezin izango da laguntza bikoiztu, eskabide bera plan bitan aurkeztuta.

4. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Jarduera nagusiki Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatzen duten erakundeek eskura ditzakete agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzak, zehaztapen hauei jarraikiz:

1.– Fakultateak, unibertsitate-eskolak, unibertsitate-institutuak eta unibertsitatearekin lotura duen ikerketa-entitate oro: jarduera guztietan, 2.2.d) artikuluan adierazitako kasuetan izan ezik.

2.– Federazioak, kooperatiba-konfederazioak, behar bezala eratu eta inskribatutako gizarte-ekonomiako enpresen beste elkarte-egitura batzuk, gizarte-ekonomiako bigarren graduko elkarte-erakundeak eta lan-sozietateen taldeak: jarduera guztietan, 2.1.b), 2.3.a) eta 2.3.d) artikuluetan adierazitako kasuetan izan ezik.

Agindu honen ondorioetarako, honakoak dira «gizarte-ekonomiako bigarren graduko elkarte-entitateak»: elkarte-egiturak direnak, kideak ere, era berean, elkarte-entitateak izanik (Gizarte Ekonomiari buruzko 5/2011 Legeak araututakoaren arabera).

3.– Gizarte-ekonomiaren arloko prestakuntza-zentroak, kooperatiba-egitura zein -taldeen edo lan-sozietateen mende daudenak eta gizarte-ekonomiaren gaineko prestakuntza lantzen dutenak.

5. artikulua.– Onuraduna izateko betekizunak:

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak lortzekotan, erakunde eskatzaileek betekizun hauek bete behar dituzte:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ondo beteta edukitzea, Ogasun eta Ekonomia Sailak horretarako ezartzen duenari jarraikiz.

b) Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen zehapen penal edo administratiborik ez izatea, edo ez egotea halakoak eskuratzeko desgaitzen duen legezko debekuren baten pean.

c) Dirua itzultzeko betebeharra izanez gero, egunean izatea, hala eskabidea egiteko unean, nola ordainketen unean.

d) Erakunde eskatzaileak erantzukizunpean deklaratzeari zer egoeratan dagoen Administrazio honi edo beste administrazio publiko bati xede eta helburu berberaz eskatutako beste edozein laguntza (eskatuta, eginbidean edo emanda).

e) Berdintasun-plan bat izatea indarrean, baldin eta beharrezkoa bada Estatuko araudiaren arabera. Halaber, 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitu eta eragozteko neurriak izatea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan estatuak ezarritako legeen arabera.

f) 50 bazkide baino gehiago dituzten kooperatiba-sozietateen kasuan, bitarteko espezifikoak jartzea kooperatiba emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko eremua izan dadin.

2.– Era berean, ezin izango dira agindu honetan araututako dirulaguntzen onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatutako egoeretako batean dauden pertsonak edo erakundeak.

6. artikulua.– Erakunde eskatzaileen betekizunak egiaztatzea.

1.– Eskabidearekin batera aurkeztuko duten erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, erakunde onuradunek adierazi behar dute ondo betetzen dituztela aurreko artikuluan zehazten diren betekizunak, baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako gainerakoak ere.

2.– Eskabidea aurkeztuta, eskatzaileak baimena ematen dio Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzari automatikoki egiaztatu dezaten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela, non eta ez duen berariaz ukatzen horretarako baimena. Kasu horretan, erakunde onuradunak dagozkion ziurtagiriak, Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako agintaritzaren eskumendunak igorritakoak, aurkeztu beharko ditu. Betebehar horiek eguneko izatea nahitaezkoa da onuradun izateko eta onuradun gisa jarraitzeko harik eta onartutako dirulaguntza likidatu arte; horrenbestez, dirulaguntza emateko unean eta ordainketak egiteko unean, egiaztatu egingo da ea betetzen diren betebehar horiek. Kopururen bat itzultzeko betebeharrak duten erakundeen kasuan, itzulketa hori dirulaguntza likidatu arte bete dela egiaztatzea ezinbestekoa izango da edozein ordainketa egiteko.

3.– Administrazio publikoek egiaztatze-, kontrolatze- eta ikuskatze-ahalmenak izanda ere, eskabideetan aukera emango da erakunde onuradunak espresuki uko egin diezaion organo kudeatzaileak datuak edo dokumentuak eskuratu edo egiaztatzeari. Halakoetan, erakunde eskatzaileak aurkeztu beharko ditu eskatutako nahitaezko dokumentuak.

7. artikulua.– Bitarteko elektronikoak erabiltzea.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzen eskabideak baliabide elektronikoaren bidez izapidetuko dira.

2.– Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa (bertan daude izapidetzeko jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak) helbide honetan dago: <https://www.euskadi.eus/zer-bitzuetak/0055220>. Fitxa horren bitartez eskuratu daitezke eskaera egiteko inprimakia.

3.– Eskabidea aurkeztu ondorengo izapidetza, jakinarazpenak barne, «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak honako helbide honetan eskuratu daitezke: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

5.– Prozedura guztia ordezkari baten bidez izapidetu liteke. Horretarako, ordezkariak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko Ahalordeen Erregistroan izena eman beharko du, honako helbide honen bidez: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

8. artikulua.– Eskabideak aurkezteko modua eta epea.

1.– Eskabidea honako egoitza elektronikoa honetan egongo da eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0055220>

2.– Eskabideak aurkezteko epea hilabete izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3.– Erakunde eskatzaileek eskabideak eta dokumentuak euskaraz edo gaztelaniaz aurkez ditzakete, nahi duten hizkuntzan. Orobat, prozedura burutzean, pertsona edo erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

9. artikulua.– Nahitaezko dokumentazioa.

Agindu honetan aurreikusitako laguntzak jasotzeko eskabideekin honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

1.– Aurreikusitako jarduerak sustatzen dituzten arrazoi eta xedeen memoria zehatza. Memoria horrek nahitaez jaso behar ditu honako hauek:

- Erabili beharreko giza baliabideak eta baliabide materialak.
- Diruz lagundu daitekeen jarduera garatzeko egutegi deskribatzailea.
- Programaren erakunde laguntzaileen zerrenda, halakorik badago.

2.– Aurkeztutako proiektuaren partiden gutxi gorabeherako aurrekontua eta aurrekontu zehatza, nahitaez honako kontzeptu hauek jaso beharko dituen:

- Barne-/ kanpo-langileen gastuak.
- Materialen gastuak.
- Koordinazio-gastuak.
- Aurkeztutako proiektuak finantzatzeko plana.

3.– Berdintasun-plana (indarrean dagoela), Estatuaren araudiaren arabera horretara behartuta egonez gero.

4.– Erakunde eskatzaileari dirulaguntza jasotzeko eskubidea onartzen bazaio, eta dirulaguntza horren ordainketa jasoko badu, Ekonomia eta Ogasun Saileko Hirugarrenen Erregistroan izena eman beharko du (emanda ez badauka edo datuak aldatu nahi baditu), helbide honetan: <https://www.euskadi.net/hirugarrenak>

10. artikulua.– Eskabidean egindako hutsak zuzentzea.

Dirulaguntzen eskabideen termino guztiak beteta ez badaude edo beharrezko dokumentazio guztia ez badaukate, erakunde eskatzaileari eskatuko zaio akatsa konpon dezala edo beharrezko dokumentuak erantsi ditzala, hamar eguneko epean, eta jakinaraziko zaio hori egiten ez badu atzera botako zaiola eskabidea. Administrazioak eskabide horri buruzko berariazko ebazpena

eman beharko du, eta ebazpen hori jakinarazi, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.1. eta 68.1 artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

Erakunderen batek eskabidea aurrez aurre aurkeztu nahi izango balu, bide elektronikoz aurkeztu beharra dagoela adieraziko zaio. Ondorio horietarako, eskabidea bide hori erabiliz aurkezten den eguna hartuko da aurkezpen-datatzat.

11. artikulua.– Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak, dirulaguntzen zenbatekoa eta zenbateko hori zehazteko irizpideak.

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan xedatutakoaren arabera, diruz lagundutako proiektua egiteko beharrezkoak diren gastuak izango dira diruz laguntzeko moduko gastuak. Eskabidearekin batera aurkeztutako aurrekontu-plangintzan oinarrituko dira gastu horiek, eta Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak baliozkotuko eta onartuko du plangintza.

2.– Hauek izango dira dirulaguntzaren zenbatekoak eta aplikatuko diren mugak:

a) 2.1.a) artikulua arabera diruz laguntzekoak diren jarduerak: jardueraren kostu garbiaren % 85, eta erakunde onuradun bakoitzak, gehienez, 30.000 euro, jarduera bitarteko propioen bidez gauzatuko badu; bestela, muga 50.000 eurokoa izango da.

b) 2.1.b) artikulua arabera diruz laguntzekoak diren jarduerak: jardueraren kostu garbiaren %, 85 eta erakunde onuradun bakoitzak, gehienez, 30.000 euro.

c) 2.1.c) artikulua arabera diruz laguntzekoak diren jarduerak: jardueraren kostu garbiaren %, 85 eta erakunde onuradun bakoitzak, gehienez, 30.000 euro.

d) 2.2.a) artikulua arabera diruz laguntzekoak diren jarduerak: jardueraren kostu garbiaren % 85, eta erakunde onuradun bakoitzak, gehienez, 30.000 euro.

e) 2.2.b) artikulua arabera diruz laguntzekoak diren jarduerak: jardueraren kostu garbiaren % 85, eta erakunde onuradun bakoitzak, gehienez, 20.000 euro.

f) 2.2.c) artikulua arabera diruz laguntzekoak diren jarduerak: jardueraren kostu garbiaren % 85, eta erakunde onuradun bakoitzak, gehienez, 30.000 euro.

g) 2.2.d) artikulua arabera diruz laguntzekoak diren jarduerak: jardueraren kostu garbiaren % 85, eta erakunde onuradun bakoitzak, gehienez, 10.000 euro.

h) 2.3 artikulua arabera diruz laguntzekoak diren jarduerak: jardueraren kostu garbiaren % 85, eta erakunde onuradun bakoitzak, gehienez, 60.000.

3.– Diruz laguntzeko modukoak izango dira enpresaren edo erakunde onuradunaren berezko langileei egotz dakizkien gastuak, baldin eta egiaztatuta badago esku-hartzaileek diruz lagundutako jarduerak garatzen zuzenean parte hartzen dutela eta horretarako trebakuntza dutela. Kasu horretan, barneko langileen ordainsariak ere egotzi litezke, onartutako jardueran aritutako denborearen proportzioan.

4.– Kooperatiba-egitura edo -taldeen edo lan-sozietateen mendeko gizarte-ekonomiako presakuntza-zentroen kasuan, ehunekoa hori 50ekoa izango da, 2.2.a) eta 2.2.b) artikuluan jasotako jardueren kostu garbitik.

5.– 2.3 artikuluko jardueretarako, ehunekoa ikerketetarako kostu garbiaren % 45 izango da, baldin eta Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren iritziz ez badira zuzenean aplikatu behar Euskadiko gizarte-ekonomiaren errealitatean.

12. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna

1.– Agindu honetan araututako dirulaguntzak bateragarri dira beste edozein administraziok edo erakunde publikok emandako laguntzekin, arrazoi eta xede bera izan arren. Nolanahi ere, dirulaguntzen zenbatekoak ezin izango du gainditu diruz lagundutako jardueraren kostu osoa, ezta agindu honen 11. artikuluan aurreikusitako gehieneko zenbatekoa ere.

2.– Erakunde onuradunak beste administrazio publiko edo erakunde publiko batzuetatik arrazoi eta xede beragatik jasotzen dituen laguntzak eta agindu honetako laguntzak pilatzen badira, eta laguntza horien baturak laguntza-gai den jardueraren kostua edo agindu honen 11. artikuluan aurreikusitako gehieneko zenbatekoa gainditzen badu, soberakin horren bateraezintasuna deklaratu da, eta murriztu egingo da Lan eta Enplegu Sailak ematekoa zuen laguntzaren zenbatekoa.

13. artikulua.– Kudeaketa, ebazpena, epea eta publikotasun-prozedura.

1.– Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza izango da agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzak kudeatzeko organo eskuduna.

2.– Gizarte Ekonomiaren zuzendariaren ebazpen bakar baten bidez eman edo ukatuko dira agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzak. Ebazpen bakar hori eskatzaileei banaka jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

Ebazpen horrek ez du administrazio-bidea agortzen; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaioke Laneko eta Gizarte Segurantzako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

3.– Agindu honen babesean aurkeztutako eskabideak espresuki ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilabete izango da gehienez, aginduak ondorioak dituenetik aurrera. Epe horretan ez bada berariazko ebazpenik ematen eta jakinarazten, ulertuko da eskabideei ezezkoa eman zaiela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, hargatik eragotzi gabe Administrazioak espresuki ebazteko duen betebeharra.

4.– Orobat, agindu honetan aurreikusitako laguntzak emateko, eta ordaintzeko, hala behar denean, baldintza izango da erakunde onuradunak amaituta edukitzea itzulketa-nahiz zehapen-prozedura oro, prozedura horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek eman dituzten –eta izaera berekoak diren– laguntza eta dirulaguntza publikoei loturikoak badira eta tramitazioan badaude.

5.– Publikotasun-printzipioa betetzeko, baina eskatzaileei banaka egin beharreko jakinarazpena eragotzi gabe, honako hau argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Gizarte Ekonomiaren zuzendariaren ebazpenaren bidez: alde batetik, agindu honen babesean dirulaguntza zer erakundek jaso duten eta zenbateko laguntza jaso duten, eta, bestetik, erakunderen bati zenbatekoa aldatu bazaio, zenbateko laguntza jaso duten horri.

14. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzeko eta justifikatzeko modua.

1.– Dirulaguntzak zatika ordainduko dira, honela:

a) Lehenengo zatia, dirulaguntzaren guztizkoaren % 60, dirulaguntza emango dela jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hamabost egun igarotakoan, baldin berariaz uko egin ez bazaio.

b) Bigarren zatia, gainerako % 40a, diruz lagundutako jarduera edo jarduerak amaitutakoan.

2.– Dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzeko, emandako dirulaguntzaren justifikazio-kontu sinplifikatua aurkeztu beharko du erakunde onuradunak, eta kontu horrek informazio hau bilduko du:

a) Egindako jardueren eta lortutako emaitzen justifikazio-memoria.

b) Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, zenbatekoa adierazita, hartzeko-duna identifikatuta eta ordainketa egin den data zehaztuta (ordainketa efektiboa edo geroratua izan ahalko da). Dirulaguntza aurrekontu aurrez zenbatetsi baten arabera ematen bada, gerora zenbateko desbideratzeak izan diren adieraziko da. Gastuak eta diru-sarrerak justifikatzen dituen eredia erantsi da, egoitza elektronikoan ere eskuragarri dagoena: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0055220>

c) Aurreko ataleko 2.a) apartatuan jasotako gastuak justifikatzen dituen dokumentazioa. Gastu horiek fakturen bidez eta merkataritza-trafikoan froga-balio bera duten edo administrazioan eraginkorrak diren gainerako agirien bidez egiaztatuko dira.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera eta dirulaguntza batzuen zerrenda, zenbatekoa eta jatorria adierazita, halakorik badago.

e) Hala badagokio, Gizarte Segurantzako TC1 eta TC2 ereduaren kopia, proiektua garatu den hilabetei dagokiena, jardueran parte hartzen duten langileak TC2 ereduaren identifikatuz. Enpresaren edo erakundearen legezko ordezkariaren ziurtagiri bat aurkeztuko da, partaideek diruz lagundutako proiektuan duten partaidetzaren ehunekoari buruz.

f) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa-gutuna, baldin eta aplikatu gabeko gerakinik badago edo gerakin horietatik eratorritako interesik baldin badago.

3.– Aurreko apartatuan adierazitako agiriak aurkezteko epea 3 hilabete izango da, diruz lagundutako jarduerak amaitzen direnetik aurrera; epea, edonola ere, 2024ko uztailaren 31 baino lehen amaituko da.

15. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

1.– Agindu honetan deitutako laguntzen onuradun diren erakundeek beti bete beharko dute ezarrita dagoen betebeharraren erregimena (dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikulua eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2. artikulua).

2.– Betebeharrak hauek ere bete beharko dituzte:

a) Laguntza edo dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, jasotako funtsak itzultzea.

b) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak laguntzen zertarako fiskalizatzeko eskatutako informazio guztia ematea.

c) Dirulaguntzak zertarako eta nola erabili diren ziurtatzea zerrenda bidezko bermeen bitartez, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horien itzulketei buruzko erregimen orokorra arautzen du, eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen ditu.

d) Espresuki adieraztea Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailaren babesa, dirulaguntza jaso duten jarduerak argitaratzen direnean, argitalpenaren atari kontrako orrialdean sail horren logotipoa jarrita. Era berean, erakunde onuradunek hartu beharreko zabalkunde-neurriak hartuko dituzte agindu honen kargupeko jarduerak finantzaketa publikoa jaso dutela behar bezala publikatzeko. Dirulaguntzaren bigarren ordainketa eskatzeko, nahitaez aurkeztu beharko da justifikazio-memoria, eta hor esplizituki jaso beharko dira betebeharrak hau betetzeko hartu diren neurriak.

16. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako edozein baldintza aldatuz gero –haren helburua betetzat jotzen bada–, baliteke dirulaguntza emateko hartutako erabakia ere aldatzea, hala dago-kionean, beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuetatik beste laguntza edo dirulaguntza batzuk eskuratu badira, edota helburu bererako beste diru-sarrerara zein baliabide batzuk eskuratu badira. Ondorio horietarako, Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak aldaketa egiteko ebazpena emango du, emandako dirulaguntzen zenbatekoak egokitzeko, eta pertsona onuradunek itzuli egin beharko dituzte neurriak gain jasotako zenbatekoak.

17. artikulua.– Ez-betetzeak eta erantzukizunak.

1.– Erakunde onuradunak ez baditu betetzen dirulaguntzak emateko ebazpenean ezarritako arauak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritako arauak eta aplikagarri diren gainerako arauak; edo aurkeztu dituen datuak faltsuak badira; edo emandako dirua helbururako erabili beharrean beste zerbaiterako erabili badu; orduan, Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak berariaz horretarako hasitako espedienteak izapidetuko du, eta erakunde interesdunari hamabost eguneko entzunaldia eskainiko dio, eta, ondoren, hala badagokio, onuradunak dirulaguntza galduko du, eta, bi hileko epean, ordura arte jasotako dirulaguntzak (osorik edo zati bat) eta lege dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari. Horrez gain, lege egin daitezkeen gainerako egintzak ere egingo dira. Hori guztia halaxe izango da hauek oinarri hartuta: abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoa eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onar-tzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan ezarritakoa.

2.– Ez-betetzeak mailatzeko eta, betiere, proportzionaltasun-printzipioaren arabera, erakunde onuradunak ez badu hasieran aurkeztutako aurrekontuaren gutxienez % 60 betetzen, kobratutako guztia itzuliko da (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Lege Orokorraren 37.2. artikuluan arabera). Egikaritu beharrekotik % 60 gainditzen bada, eta zalantzarik gabe egiaztatuta badago erakunde onuradunak konpromisoak betetzeko moduan jardun duela, emakida-ebazpena aldatu egingo da, aurkeztutako justifikazioaren proportzioan.

3.– Hauek dira dirulaguntzen arloko arau-hauste administratiboak: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan tipifikatutako ekintzak eta ez-egiteak. Eta zehagarriak dira, zabarkeria arinak besterik ez badira ere. Dirulaguntzen arloko arau-hauste horiek diruzko zehapenak ezarritako zehatuko dira, baina baita, hala dago-kionean, diruzkoak ez direnak ere.

18. artikulua.– Dirua itzultzeko prozedura.

Aurreko artikuluan aurreikusitako ez-betetzeen kasuetan, honako hau izango da jasotako laguntzak itzultzeko prozedura:

a) Gizarte Ekonomiako zuzendariak ebazpen baten bidez jakinaraziko dio erakunde onuradunari dirua itzultzeko prozedura hasi dela, eta zergatik hasi den; horrez gain, 15 eguneko epea emango dio, egoki irizitako alegazioak egin ditzan.

b) Alegazioak jasota edo batere aurkeztu gabe igaro bada epea, organo eskudunak ebazpen baten bidez xedatuko du dagozkion kopuruak EAEko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko betebeharrak, bi hileko gehieneko epea emanez horretarako, ebazpena jakinarazten denetik aurrera. Epe hori borondatezko epetzat hartuko da.

Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez ere hamabi hilabeteko epean ebatzi beharko da.

c) Borondatez ordaintzeko epean itzulketarik egiten ez bada, horren berri emango zaio Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saileko Finantza eta Aurrekontu Sailburuordetzari, hark pre-miamendu-bideari ekin diezaion, aplikatzekoa diren legezko arauak xedatutakoari jarraikiz.

19. artikulua.– Datuak babestea.

Agindu hau aplikatuz jasotzen diren datu pertsonalak Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta aplikatu beharreko gainetarako arauetan xedatutakoaren arabera tratatuko dira.

Datu-babesari buruzko informazio xehatua lortzeko, helbide honetara jo daiteke: <https://www.euskadi.eus/rgpd/0055220>

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Aplikatu beharreko araudia.

Agindu honetan adierazitako dirulaguntzetarako, arau hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. titulua (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen); Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko oinarritzako manuak (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak garatu zuen lege hori).

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, eta, horretarako, bi hilabete izango dira, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.a) eta 46.1 artikuluetan.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Europar Batasuna.

Agindu honetan araututako laguntzetan ez dira betetzen Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluko 1. apartatuan ezarritako betekizun guztiak; ondorioz, ez zaio Europar Batasunari jakinarazi behar.

AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA.– Ondorioak.

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 14a.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.